




LH-4. MAILA
5. UNITATE DIDAKTIKOA
"Komunikabideak"



LH4-5UD.KOMUNIKABIDEAK: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Komunikabideek ikasleen heziketan duen garrantzia funtsezkoa da. Beharrezkoa da beraiekin komunikabideei buruzko azterketa eta analisi bat egitea berdintasunaren ikuspuntutik. Beharrezkoa da komunikabideetan emakumeek eta gizonek duten ikusgarritasunari eta ematen zaien trataerari buruz hausnartzea eta informazio osagarriak lantzea.

KONTZEPTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETA
<p>1. Komunikabideetan genero ereduak eta rolak identifikatu. Prentsa, telebista, irratia, internet, iragarkiak, sare sozialak... Komunikabide guztietan, gutxienez inplizituki, genero estereotipoak zabaltzen dira. Genero sistemaren ikuspegitik aukeratzen dira gaiak eta orrialdeak, egiten dira elkarrizketak eta albisteak, ematen dira titularrak, denborak eta ordena, eta abar.</p>	<p>1. Behatu eta aztertu. Ikusgarritasuna. "Komunikabideen partxisa" jolasaren testuak aztertuz genero estereotipoei buruzko hausnarketa hasi. Webgunean, 4 karta-sorta x 48 karta ezberdin daude; esparru bakoitzeko 48 esaldi. Egiak eta gezurrak identifikatu dituzte ikasleek? Zein esparrukoak ez? Zergatik? Iritzi bera dute neskek zein mutilek? Zertan ez? Zergatik?</p>	<p>→ Eskola komunikabidea ere bada, komunikazio asko egiten da. Komunikabideak aztertuz eta ikasiz, berdintasunerako barne komunikazio justuagoa egin dezakegu.</p> <p>→ Esparru guztietan, pertsona guztien albisteak, interesak, jarduerak, merituak eta ekarpenak bilatu, jaso eta zabaldu. Benetako errealitatea, guztion errealitatea islatu.</p>
<p>2. Gizartean nor bere lekua eta balioa irudikatzen eta ikasteko ereduak. Komunikabideak eskola indartsu eta eraginkorrak dira. Emakumeek eta gizonek gizartean duten presentzia, harremanak eta arrakasta islatzen dute. Gizartean arrakasta eta ospea izateko genero ereduak erakusten dituzte.</p>	<p>2. Ereduak. Arrakasta izateko ereduak. Zenbat gizon eta zenbat emakume ospetsu, ezagun, eredugarri ezagutzen dituzte? Eredu gehienak gizonak dira? Neskek gizonak aipatzen dituzte? Mutilek emakumeak aipatzen dituzte? Zergatik? Zer mezu jasotzen dute neskek? Eta mutilek? Non ikusi eta iruditzen dituzte beraien buruak?</p>	<p>→ Emakumeen interesak, kezkek, balioak eta jarduerak islatu, gizonek egindakoei emandako trataera bera eman. Munduaren erdia dira.</p> <p>→ Emakumeak gizonen arlo berberetan egon eta jardun dira, maiz ezkutatu bada ere. Historian zehar eta gaur egun, adina lan eta ekarpen baliotsu egin eta egiten dute. Bilatu eta ezagutzera eman.</p>
<p>3. Emandako trataera. Kontua ez da soilik zenbat emakume eta zenbat gizon, baizik eta baita ere, non eta nola agertzen diren, zertan eta zertarako, nori zer eskaintzen zaion, eta abar. Ikasleek emakumeak eta gizonak non dauden eta non ez dauden ikusi eta ikasten dute. Eta nola, zer egiten, zergatik... Zelako rola, statusa, janzkera, adina, itxura, osasuna, dirua...</p>	<p>3. Nori zer. Non eta nola. Trataera. Identifikatu dituzte emakumei zuzentzen zaizkien produktuak? Eta gizonei zuzentzen zaizkienak? Zergatik egiten da banaketa hau? Zertarako? Badaude biei zuzendutako produktuak? Zergatik? Neskek zein mutilek identifikazio berbera egin dute? Zein da emakumeen irudia? Eta gizonena? Zergatik? Zertarako?</p>	<p>→ Modu berean, balio berberaz, tratamendu eta protagonismo bera eman komunikatu, pertsonen sexua kontuan hartu gabe.</p> <p>→ Arrakasta eredu anitzak jaso, beti ere bizitzarekin eta giza eskubideekin lotutakoak. Diruaren arrakasta-eredu bakarra baztertu.</p>

→ Berdintasunez komunikazio justuago, osoago, egokiago eta baliogarriago bat.